




EAEko esportazioek behera egin zuten urtarrilean

Ondasunen esportazioa atzerrira
Urte bakoitzeko urtarrila. Milioi euro




Iturria: Eustat.

Atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak %4,7 murriztu ziren berrito urte arteko tasan urtarrilean. Zenbatekoa 2.264 milioi eurokoa izan zen, eta aurreko urteko hila berekoa, berriz, 2.376 milioi eurokoa. Produktu energetikoen esportazioak %75,2 jaitsi ziren eta energiaz bestelakoak %1,0.

Euskadin orduko soldata kostu osoa igo egin zen 2024an

Ordu bakoitzeko soldata kostua guztira
Euroak ordu bakoitzeko



Iturria: INE.


INEk argitaratutako lan kostuei buruzko hiruhileko inkestaren datuen arabera, lan egindako ordu bakoitzeko soldata kostu osoa berrito igo zen EAEn, laugarren urtez jarraian, eta 2024an 21,5 euro kobratu ziren ordu bakoitzeko. Horrek esan nahi du %2,6ko igoera izan zela 2023ko kostuarekin alderatuta.



Atzerritarren afiliazioak gora egin zuen otsailean

Gizarte Segurantzaren afiliatutako atzerritarrek

Langile kopurua




Iturria: Gizarte Segurantzak.

Gizarte Segurantzak atzerritarren 96.711 afiliazio erregistratu zituen EAEn otsailean. Horrek esan nahi du igoera txiki bat egon dela aurtengo urtarilarekin alderatuta, eta 2024ko otsailarekin erkatuta, berriz, %5,7ko hobekuntza lortu da. Hala, goranzko joerari heldu zaio berriro, eta datuak 2024ko urriko maximoetara hurbildu dira.

Hoteletako gaualdiek gora egin zuten otsailean

Hoteletan igarotako gaualdiak

Urte bakoitzeko otsaila. Milakoak



Iturria: Eustat.

Eustaten datuen arabera, EAEko hotel establezimenduetan igarotako gaualdiak %4,4 egin zuten gora otsailean, aurreko urteko aldi beraren aldean. Horrela, hazkundearen erritmoa bizkortu egin zen eta 426.000 gaualditako langa gaintitu zuen, otsail batean inoiz lortu den kopururik handiena.